

Oiartzun

Oiartzungo bazterrak



Egileak:

Talde Oiartzuarra

LH5



Ikastolen Elkartea

Oiartzun gozatu

INTXIXU



Egun zoragarria pasa nahi al
duzu?

Â¡Ven y disfruta de una
experiencia inolvidable!

Welcome!

Â

Aurkezpena

Kaixo lagunok, ni
Intxixu naiz. Betidanik
indartsua izanÂ naiz eta
aixe altxatzen ditut
pisu handia duten
gauzak. Ausarta ere
banaiz, erronkei aurre
egin eta gainditzea
lortzen dut.

Presentación

Hola, me llamo Intxixu.
Desde siempre he sido
fuerte y levanto
fácilmente cosas
pesadas. Y también soy
valiente.

Oiartzun begirada batean

Kokapena

Oiartzun Euskal Herriko ipar-ekialdean dago, Kantauri isurialdean.



Erliebe-elementuak

Oiartzunen erliebe elementu batzuk daude, adibidez: mendiak, ibaia, mendilerroa...

Bestelako informazioa

Oiartzun herri txiki bat da, oso lasaia. Oiartzunek 10.000 biztanle inguru ditu. Oiartzunen pertsona ospetsuak daude, adibidez: Ander Imaz (pilotaria), Xabier Lete (poeta eta abeslaria), Alaia Martin (bertsolaria) eta Antton Mendizabal (eskultorea).

Â

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

AIAKO HARRIA



Aiako Harria parke naturala Gipuzkoako ipar ekialdean kokatuta dago.

Aiako Harria izeneko parke naturala, 1995 ko apirilaren 12an izendatu zen. Aiako Harriak parke naturala, Gipuzkoako Oiartzun herrian kokatuta dago nahiz eta parke natural horrek inguruko hainbat herrietako lurak hartu, adibidez, Errenteriako lurak.

Bertako mendirik ezagunena Aiako Harria da. Aiako Harriaren altuera 838 metrokoa da eta hiru tontor ditu. Tontor handienak 839 metro ditu eta Errolbide du izena..

Aiako Harriak parkean ondorengo animaliak topa ditzakegu: Katagorria, behia, intsektuak, ardiak... aurkitu daitezke.

Landareei dagokionean, belarra, pinua, gorostia, haritza... aurkitu daitezke.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

TXARA BASOA




Txara basoa 200-300 metro karratu ditu. Txara basoa Oiartzunen dago (Elizalde auzoan) herriko hilerriaren aurrean. Txaran bidezidor ugari daude, Txaran sartzean zareneara eskuinera biratu eta beheraka jeitsi eta mahai batzuk aurkituko dituzu, bertan, zure familiarekin piknik bat egiteko aukera duzu.

Â

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

BELOAGA GAZTELUA



Oiartzungo Gurutze auzoan dago. Gerra garaiko gaztelua da. Beloaga gaztelua Gipuzkoan kontserbatzen diren Erdi Aroko gazteluen artean garrantzitsuenetakoa da. Beloaga gaztelua 1200. urtean konkistatu zuen Gaztelako Alfonso VII.a erregeak. Bi ate ere baditu bunkerretara sartzeko.

Â

Â

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

OIARTZUNGO ELIZA




Oiartzungo elizak San esteban du izena eta 1626tik 1643ra eraiki zuten, XVII. mendean. Erretaularen klazisista da.

[Juan Huitzi](#) eta [Gaspar Ramos](#) nafarrek erretaularen eskulturak egin zituzten, erretaula XVIII. mendekoa da.

Gerrak direla eta behin baino gehiagotan erreta egon da eta konpondu dute.

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Haurtzaro Ikastolako aparkalekutik Oiartzungo San Esteban Elizara.

Deskribapena

Haurtzaro Ikastolako goiko aparkalekutik biribilgunera joan, Manuel Lekuona hiribidetik. Jarraitu hiribide berdinetik eta Madalensoro plaza ezkerretara utziz jarraitu hiribide berdina udaletxe aurreko plazara iritsi arte. Miren taberna eskuinean utzi eta 15 m. aurrera joan eta ezker aldeko eskaileak igo eta San Esteban eliza topatuko duzu.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- San Esteban elizatik Txarara, San Esteban plaza, hilerria, beilatokia.

Deskribapena

Elizatik Doneztebe plazara joan. Gero, Manuel Lekuona hiribidea hartu eta hilerriraino joan. Hilerri ondoan dagoen eskulturara iristean, beilatokiaren ondotik doan bidezidorrari jarraitu eta aurreko aldean dagoen Txara parkera iritsi.

Â

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Txara, Makutso, Altzibar auzoa, Karrika, Oianleku, Aiako Harria.

Deskribapena

Hasi Txara parketik aurrera Makutso bidera iritsi arte. Ondoren, egin aurrera eta gero biratu eskuinera. Gerxeago aurrera jarraitu Altzibar auzora iritsi arte. Altzibarretik aurrera jarraitu eta Gruas Olalde pasa eta Karrikara iritsiko zara. Karrikatik aurrera egin, Oianleku bidean jarraitu aurrera. Gero bidegurutze batera iritsiko zara eta hor eskuinera biratu eta egin aurrera. Eta Aiako Harrira iritsiko zara.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Urrats honetan, Arritxulo aterpetxea, Tolare jatetxea, Arpide errepidea, Gurutze, Arkale, tunelak eta Beloaga dira.

Deskribapena

Aiako Harriko Arritxulo aterpetxetik Ergoienera jaitsi. Ergoienera iristean Tolare jatetxe ondotik pasa eta jarraitu Fortaleza jatetxera iritsiko zara. Fortalezara iritsi eta errepidetik jarraitu arpide errepideraino. Errepide hau hartu eta Gurutze auzora iritsi. Biribilgunean, Arkale Zahar baserrirako bidea hartu, baserrira iritsi ondoren, ezkerretara dauden tunelak hartu eta Beloaga gaztelura iritsiko zara.

Â

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Laugarren interesguneetik helmugara joateko (helmuga eta abiapuntua berbera da), badaude erreferentzia puntuak.

Deskribapena

Hasi jaisten Arkaleko tuneleraino, jarraitu beheraka. Errepidea aurkitzen duzunean jaitsi Toki alai jatetxera eta joan Gurutze bidetik. Kabitxo jatetxera iritsiko zara, eta lehenengo bidegurutzean biratu ezkerredera eta eliza ikusiko duzu.

Bisitarientzako gomendioak

Txakurra dutenentzako, ekarri txakurraren kaka gordetzeko boltsak.

Ez hartu loreak, utzi dauden lekuan.

Traer unas botas de agua.

No tires basura al suelo,Â tiralala al contenedor.

Don't sit on historic monuments.

Don't feed the animals.